**INGURUMENEKO TOKIKO FOROAREN BILERAREN AKTA**
**(20.01.28)**

INGURUMENEKO HIRI ZERBITZU ETA INGURUMEN KALITATE ZERBITZUA ZINEGOTZI ARDURADUNA:
JOSEBA ARREGI jn.

INGURUMENEKO TEKNIKARIA:
JOSU ATEKA jn.

FOROKO IDAZKARIA:
ARANTZA CABEZA and.

AHOLKULARIA:
EUGENIA ATIN and.

BERTARATUTAKOAK:

XABIER BUENETXEA jn. (Ingurumen gaietan ospe handia duen pertsona)
JAVIER LOIDI jn. (Unibertsitate munduko pertsona)
ANDEKA ZUBIAUR jn. (Eskola Agenda 21 Aixerrota Eskola).
TXARO ARCENIEGA and. (Basozaleakeko ordezkaria)
ANGEL ASENSIO jn. (Basozaleakeko presidentea)
CARLOS ARANA jn. (Sarekideko ordezkaria)
KARMELE URQUIJO and. (Gizatiarreko ordezkaria)
JUANJO QUIÑONES jn. (Urtealaiakeko ordezkaria)
DIMAS RAMOS jn. (Kirol elkarteak)
AMAIA LAUZIRICA and. (Getxo Enpresako batzordekidea)

Honako hauek ezin etorria azaldu dute: JANIRE OCIO and. (Azpiegitura, Obra eta Zerbitzu Arloko Zinegotzia), KOLDO NABASKUES jn. (Euskal Kontsumitzaileen Alkarteko ordezkaria), MIGUEL ANGEL ROGGERO jn. (Itxartu Taldea), eta CELIA MARAÑON and. (Ekologistak Martxan)

Getxon, 2020ko urtarrilaren 28an, arratsaldeko zazpietan bildu da Getxoko Ingurumeneko Tokiko Foroa, eta arestian aipatutako kapitularrek parte hartu dute.

## GAI ZERRENDA

Bileraren hasieran, Eugenia Atinek arestian esandako Foroko zenbait kidek ezin etorri izana adierazi dutela aipatu du.

Txaro Artziniegak bere kidea den Angel Asensio, Basozaleak-eko lehendakaria, aurkeztu du, gaurko bilerara gonbidatu gisa etorri dena Foroaren jarduerak ezagutzeko eta, aldi berean, Basozaleak elkartea Foroko kideei aurkezteko. Basozaleak Getxoko elkarte mikologiko eta botanikoa da eta urteko jarduera plana eskaintzen du, mendira egiten diren irteerak eta 2 erakusketa barne; erakusketa horietariko bat mikologikoa da eta urrian egiten da eta, bestea, botanikoa da eta maiatzean egiten da. Gainera herritarren eskura jartzen dute perretxikoak eta landareak sailkatzeko zerbitzua, doan erabil daitekeena Karidade kalean dituzten bulegoetan. Duela gutxi

**ACTA DE LA REUNIÓN DEL FORO LOCAL DE MEDIO AMBIENTE**
**(28.01.20)**

CONCEJAL DE SERVICIOS URBANOS AMBIENTALES Y CALIDAD AMBIENTAL:
D. JOSEBA ARREGI

TECNICO DE MEDIO AMBIENTE:
D. JOSU ATEKA

SECRETARIA DEL FORO:
Dª ARANTZA CABEZA

CONSULTORA:
Dª EUGENIA ATIN

ASISTENTES:

D. XABIER BUENETXEA (Persona de reconocido prestigio en Medio Ambiente)
D. JAVIER LOIDI (Persona del mundo de la universidad)
D. ANDEKA ZUBIAUR (Agenda Escolar 21 Aixerrota)
Dª TXARO ARCENIEGA (Representante de Basozaleak)
D. ÁNGEL ASENSIO (Presidente de Basozaleak)
D. CARLOS ARANA (Representante de Sarekide)
Dª KARMELE URQUIJO (Representante de Gizatiar)
D. JUANJO QUIÑONES (Representante de Urtealaiak)
D. DIMAS RAMOS (Asociaciones Deportivas)
Dª AMAIA LAUZIRICA (Vocal de Getxo Enpresa)

Excusan su no asistencia: Dª JANIRE OCIO (Concejala de Infraestructuras, Obras y Servicios), D. KOLDO NABASKUES (Representante de la Asociación de Personas Consumidoras y Usuarias Vasca), D. MIGUEL ANGEL ROGGERO (Itxartu Taldea), y Dª CELIA MARAÑON (Ekologistak Martxan)

En Getxo, a 28 de enero de 2020 se reunió a las diecinueve horas de este día el Foro Local de Medio Ambiente de Getxo, con asistencia de los capitulares reseñados.

## ORDEN DEL DÍA

Al comienzo de la reunión, Eugenia Atin excusa la no asistencia de algunos miembros del Foro anteriormente citados.

Txaro Arceniega presenta a su compañero Ángel Asensio, Presidente de Basozaleak, que acude a la reunión de hoy en calidad de invitado para conocer las actividades del Foro y al mismo tiempo presentar la asociación Basozaleak a los miembros del Foro. Basozaleak es la sociedad micológica y botánica de Getxo que ofrece un plan de actividades anuales incluyendo salidas al monte y 2 exposiciones; una micológica en octubre y otra botánica en mayo. Además, ponen a disposición de la ciudadanía el servicio de clasificación de setas y plantas que puede utilizarse gratuitamente en sus oficinas en la calle

Getxoko Hegaztiei buruzko liburu bat argitaratu dute, bilera honetako parte-hartzaileen artean banatu dena.

Caridad. Recientemente han publicado un libro sobre las Aves de Getxo que se reparte entre los asistentes de la presente reunión.

Halaber, Eugenia Atinek Amaia Lauzirica, Ingurumeneko Tokiko Foroko kide berria dena, herriko merkataritzaren ordezkari gisa aurkeztu du. Amaia Lauzirica Getxo Enpresa elkarteko kidea da eta arrazoi pertsonalengatik kargua utzi duen Javier Galan ordezkatzen du.

Asimismo, Eugenia Atin presenta a Amaia Lauzirica, nueva miembro del Foro de Medio Ambiente, como representante del comercio local. Amaia Lauzirica es vocal de la asociación Getxo Enpresa y sustituye a Javier Galán que por motivos personales ha dejado el cargo.

Ondoren mahaiko kideak ezagutzeko aurkezpen-erronda egin da.

A continuación se hace una ronda de presentaciones para conocer a los miembros de la mesa.

**1.- Ingurumeneko Tokiko Foroak 2019ko abenduaren 10ean egin zuen bileraren akta onestea.**

**1.- Aprobación del acta correspondiente a la reunión del Foro Local de Medio Ambiente, celebrada el 10 de diciembre de 2019.**

Akta aho batez onetsi da.

Se aprueba el acta por unanimidad.

**2.- Hondakinak Kudeatzeko Lantaldean parte hartzeko gonbidapena**

**2.- Invitación a formar parte del Grupo de Trabajo de Gestión de Residuos**

Joseba Arregik Hondakinen Kudeaketarako Lantaldean ere parte hartzeko gonbita egin die Foroko kideei. Celia Marañón, Koldo Nabaskues eta Javier Galán Ingurumeneko Tokiko Foroa ordezkatzen ari ziren lantalde horretan, baina legealdi berriarekin partaidetza hori Foroko kide guztiei zabaldu zaie.

Joseba Arregi lanza la invitación a los miembros del Foro a participar también en el Grupo de Trabajo de Gestión de Residuos. Celia Marañón, Koldo Nabaskues y Javier Galán venían representando al Foro de Medio Ambiente en dicho Grupo de Trabajo, pero con la nueva legislatura se abre la participación a todos los miembros del Foro.

Lantaldea urtean 3 aldiz biltzen da gutxi gorabehera, hiriko hondakinen kudeaketa hobetzeko helburuarekin. Hondakinak Kudeatzeko Plan bat dago, aurkeztu egiten dena eta lantalde honek balioetsi behar duena. Egiten diren proiektuak aurkezten dira eta Getxon egin beharreko jarduketak baloratzen dira. Taldea teknikariek, Ferrovial- Asaser ABEEko arduradunek, udal talde guztietako ordezkariek eta Ingurumeneko Tokiko Foroko ordezkariek osatzen dute. Bilerak normalean 17:00etan izaten dira eta gutxi gorabehera bi orduko iraupena izaten dute. Interesdunek Eugenia Atinengana jo dezakete horren berri emateko.

Se trata de un Grupo de Trabajo que se reúne aproximadamente 3 veces al año con el objetivo de mejorar la gestión de los residuos urbanos. Existe un Plan de Gestión de Residuos que se presenta y se somete a valoración por parte de este grupo de trabajo. Se presentan los proyectos que se llevan a cabo y se valoran las actuaciones a ser realizadas en Getxo. El Grupo se compone por el personal técnico, responsables de la UTE Ferrovial- Asaser, representantes de cada grupo municipal y representantes del Foro de Medio Ambiente. Las reuniones se celebran normalmente a las 17:00 con una duración aproximada de dos horas. Las personas interesadas pueden avisar a Eugenia Atin.

**3.- 2020-2023 Ekintza Plana egitea.**

**3.- Elaboración del Plan de Acción 2020-2023.**

Ezagutzen ez dutenentzat, Eugenia Atinek Tokiko Agenda 21i buruzko sarrera laburra egin du eta adierazi eta zaldu du gaur egun 2020-2023 epealdi berrirako Ekintza Plana egiteko prozesuan gaudela.

Para las personas que no la conocen, Eugenia Atin hace una breve introducción sobre la Agenda Local 21 y cómo en la actualidad estamos en el proceso de elaborar el Plan de Acción para el nuevo periodo 2020- 2023.

Abenduko bileraren ondoren, non Ingurumeneko Tokiko Foroko pertsona guztien ekarpenak jasotzeko lan-saio bat egon zen, gaurko bileran ekarpen horiek eta horiek guztiak sartzeko Planaren egituraren proposamena aurkezteko da.

Tras la reunión de diciembre en la que hubo una sesión de trabajo para recoger las aportaciones de todas las personas del Foro de Medio Ambiente, la reunión de hoy consiste en presentar dichas aportaciones y la propuesta de estructura del Plan para incluir todas ellas.

Foroaren hurrengo bileran, 2016-2019 urteetako Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planaren ebaluazioa aurkeztuko da. Eta hurrengo bileran ekingo diogu, berriz ere, egungo Plana egiteari, gaur

En la próxima reunión del Foro se presentará la evaluación del Plan de Acción de Agenda Local 21 de los años 2016-2019. Y en la siguiente reunión será cuando retomemos la elaboración del

adosten eta erabakitzen ditugun ekintzen bideragarritasuna aztertzeko ikuspuntu teknikoa dugunean.

Horrela, Eugenia Atinek Planaren proposamen bat aurkezten du pantailan; proposamen horretan Foroko kideek abenduan planteatu zituzten jarduketa guztiak jaso dira.

Aurrera egin da Planaren aurkezpenean eta prozesuan zehar Foroko kideek iruzkinak egin dituzte eta lehen zirriborroa hobetu dute. Eranskin gisa landu den Planaren zirriborroa erantsi da; agiri horretan bileran zehar egindako aldaketak gorriz nabarmendu dira.

Udal kudeaketaren lehen ildo estrategikoan, Joseba Arregik A1.1.5 Ekintzan foroak idaztea, pluralean alegia, proposatzen du, Ingurumeneko Tokiko Forora ez mugatzeko, horrela Hondakinen Kudeaketarako Foroa edo 4 urte hauetan sor litezkeen beste batzuk sartuz. Era berean, adierazi du berari garrantzitsua iruditzen zaiola A1.1.3 ekintzan, baliabideen erabilera murrizteari buruzkoan, udalak bi aldeetatik inprimatzeko jarduketa gehitzea, inprimagailuak berez aukera hori lehenetsita konfiguratu daitezen. Alde horretatik Javier Loidik paperetan idazpuruak eta logoak murriztea iradokitzen du.

Aipatzen da jasotzen diren jarduketetako batzuk orokorregiak eta lausoegiak direla edo jarduketak baino gehiago helburuak direla; horregatik zehazten ez diren jarduketa horiek ezabatzea gomendatzen da.

Herritarren eskura dagoen informazioari buruzko bigarren ildo estrategikoari dagokionez, Karmele Urquijok informazio-panelak instalatzea proposatu du, Bilbon daudenen modukoak, alegia, airearen kalitateari eta abarri buruzko ingurumeneko informazioa ematen dutenak. Getxo Berriri dagokionez, Carlos Aranak aldizkakotasuna murriztu beharko litzatekeen galdetu du, hori bai, edukiak areagotuz.
Amaia Lauziricaren iritziz, oraindik lan asko dugu egiteko aplikazioei dagokienez, arlo horretan ez baikaude oso eguneratuta. Ingurumenaren arloko intereseko puntuak adierazten dituen app bat eduki liteke. Karmele Urquijo ados dago, baina eskatu du ez dadila izan beste zerbait ordezko kanal bat, beste batzuei gehitzekoa baizik.
Juanjo Quiñonesek A 2.3.4an jarduketa gisa aipatzen den txoko berdeari buruz gehiago jakiteko interesa duela adierazi du. Andeka Zubiaurrek azaldu duenez, paper-euskarrian dagoen informazioa emateko panel bat da eta Ikastola baten ingurumenarekin lotutako albiste nagusien berri ematen du.

Hirigintza jasangarriari buruzko 3. ildo estrategikora pasatuz, Amaia Lauziricak Zugazarte aldea aipatu du puntu kritiko gisa egindako obren ondoren, eremua urez beteta eta soropilik gabe geratu delako. Gainera, eroritako zuhaitzak daude.

Javier Loidik Zuhaitzaren Eguna ospatzearen garrantzia azpimarratu du, herritarrek urte askotarako beretzat hartuko duten zuhaitz bat landatzeko aukera izan dezaten. Apurka-apurka hasteko, pertsona gutxi batzuei bakarrik ireki dakieke aukera, eta ostean anbizio handiagokoarekin joka daiteke. Landatuko diren zuhaitz edo zuhaixkek "jabea" izatea da kontua. Angel Asensioren iritziz zaindu egin behar da zein zuhaitz mota eta non landatzen diren.

Plan actual, una vez contemos con el punto de vista técnico para analizar la viabilidad de las acciones que acordemos hoy.

Así, Eugenia Atin presenta en pantalla una propuesta de Plan en la que se han recogido todas las actuaciones planteadas por las y los miembros del Foro en diciembre.

El plan se va presentando y las personas integrantes del Foro van haciendo comentarios y mejorando el primer borrador. Se adjunta como anexo el borrador del Plan sobre el que se ha trabajado en el que se resaltan el color rojo las modificaciones realizadas durante la reunión.

En la primera línea estratégica de gestión municipal, Joseba Arregi propone en la Acción A1.1.5 poner foros en plural para no limitarla al Foro de Medio Ambiente incluyendo así al Foro de Gestión de Residuos u otros que pudieran surgir en estos 4 años. Asimismo, le parece importante añadir en la acción A1.1.3 de reducir el uso de recursos, la actuación por parte del Ayuntamiento de imprimir por ambas caras, para que se configuren así por defecto las impresoras. En este sentido, Javier Loidi sugiere reducir los encabezamientos y logos en los papeles.

Se comenta que algunas de las actuaciones que se recogen son demasiado generales o son objetivos más que actuaciones, por lo que se recomienda eliminar aquellas actuaciones que no concretan.

En la segunda línea estratégica sobre información a disposición de la ciudadanía, Karmele Urquijo propone instalar paneles informativos como los de Bilbao, con información de tipo ambiental sobre la calidad del aire, etc. Con respecto al Getxo Berri, Carlos Arana plantea la cuestión de si se debería disminuir la periodicidad, eso sí, aumentando los contenidos.

Amaia Lauzirica opina que aún nos queda trabajo por hacer con respecto a las apps puesto que no estamos muy al día. Se podría contar con una app que señale los puntos de interés medio ambiental. Karmele Urquijo está de acuerdo pero pide que no sea un canal sustitutivo sino que sume.

Juanjo Quiñones se interesa por saber más sobre el txoko verde que se menciona como actuación en la A 2.3.4. Andeka Zubiaur explica que se trata de un panel informativo en soporte papel donde se informa sobre las principales noticias relacionadas con medio ambiente en una Ikastola.

Pasando a la línea estratégica 3 sobre urbanismo sostenible, Amaia Lauzirica señala la zona de Zugazarte como punto crítico tras las obras acometidas ya que la zona ha quedado inundada y sin césped. Además hay árboles caídos.

Javier Loidi recalca la importancia de celebrar el día del árbol para que la ciudadanía tenga la oportunidad de plantar un árbol que considerará suyo por muchos años. Se puede iniciar tímidamente abriendo la posibilidad solo a unas pocas personas y ser más ambiciosos más adelantes. Se trata de que los árboles o arbustos que se vayan a plantar tengan “dueño/a”. Ángel Asensio opina que hay que vigilar qué tipo de árboles y dónde se plantan.

Xabier Buenetxeari oso garrantzitsua iruditzen zaio A3.3.1 ekintzaren barruan jatorri autoktonoko haziaren erabilera sartzea.

A Xabier Buenetxea le parece muy importante incluir en la acción A3.3.1 la utilización de semilla de procedencia autóctona.

Mugikortasun jasangarriari dagokionez, Carlos Aranak araudiari buruzko A3.4.2 ekintzari jarduketa berri bat gehitzea iradokitzen du, zehatzago esanda, erregelamendua herritarren artean zabaltzea. Ezjakintasun handia dago, eta liburuxken bidez mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak erabiltzeko araudiari buruzko informazioa eman daiteke: bizikletak, patineteak, aulkiak, orgatxoak, etab.

Con respecto a la movilidad sostenible, Carlos Arana sugiere añadir una nueva actuación a la acción A3.4.2 sobre reglamentación, en concreto, la divulgación del reglamento entre la ciudadanía. Existe un gran desconocimiento y a través de folletos se podría informar sobre el reglamento de uso de los vehículos de movilidad personal: bicicletas, patinetes, sillas, carritos, etc.

Andeka Zubiaurreren eta Angel Asensioren artean eztabaida sortu da bidegorria erabiltzen den ala ez. Abiadura altuetan ibiltzen diren txirrindulariak ezin dira bidegorritik ibili, horregatik ibiltzen dira errepidetik.

Hay un debate entre Andeka Zubiaur y Ángel Asensio sobre si se usa o no el bidegorri. Los ciclistas que van a altas velocidades no pueden circular por el bidegorri, por eso circulan por la carretera.

Patineteen zerbitzu publikoaren sistema ezartzeari buruzko A3.4.3 ekintzak nolabaiteko eztabaida pizten du, Amaia Lauziricari eta Karmele Urquijori arriskutsua iruditzen baitzaie. Berriro ere araudi on baten eta kontrol handiago baten egon daiteke gakoa. Zaintzarekin bideragarria izan liteke.

La acción A3.4.3 sobre implantar un sistema de servicio público de patinetes suscita cierta controversia ya que a Amaia Lauzirica y a Karmele Urquijo les parece peligroso. La clave puede estar de nuevo en un buen reglamento y un mayor control. Con vigilancia podría ser viable.

Karmele Urquijok adierazi du interesgarria litzatekeela semaforoen denborak kontrolatzea ere, pertsona guztiek oinezkoen pasabideetan pasatzeko denbora nahikoa dutela ziurtatzeko. Hain zuzen ere, Gobelaurre kalean (Artatzako Institutuaren eta Erromo Eskolaren artean) dagoen pasabidean oinezkoari semaforoak ematen dion gurutze-denbora ez da nahikoa. Foroarentzat interesgarria izango litzateke denborak ezagutzea eta handitzea, pertsona guztiei errepidea pasatzeko denbora eman diezaieten. Agian horrelako kasu gehiago daude, eta interesgarria litzateke horiek aztertzea.

Karmele Urquijo señala que sería de interés también controlar los tiempos de los semáforos para asegurarse de que todas las personas tienen tiempo para pasar en los pasos de peatones. En concreto, el tiempo para cruzar que concede el semáforo al peatón en el paso en la calle Gobelaurre (entre el instituto de Artaza y la Romo Eskola) es insuficiente. Sería de interés para el Foro conocer los tiempos y si se podrían aumentar para que a todas las personas les dé tiempo a pasar la carretera. Tal vez existan más casos de este tipo que sería interesante analizar.

Jarraian, udalerriko trafikoa hobetzeko ideia berriak proposatzen dira (A3.4.4 ekintza). Hala, hiriguneetarako sarbidea mugatzea proposatu dute. Hori egiteko modua arlo eskudunak zehaztu beharko du, baina asmoa litzateke mugatzea, dagoeneko hiri askotan egiten ari diren bezala. Amaia Lauziricak azaltzen duenez merkatarien horri buruzko iritzia askotarikoa da; alde batetik, kaleak oinezkoentzat bihurtzea nahi dute, horrek jende gehiago erakartzen duelako baina, bestetik, autoz etorri ahal izatea ere eskatzen dute. Zentzu horretan, herrigunetik kanpo aparkatzeko erraztasuna eman beharko litzateke. Era berean, auto elektrikoak alokairuan eskaintzea proposatzen da, jendeak auto propioa izateko hainbesteko beharrik izan ez dezan.

A continuación se proponen nuevas ideas para mejorar el tráfico en el municipio (acción A3.4.4). Así, se propone restringir el acceso a los núcleos urbanos. La forma de hacerlo tendrá que ser determinada por el área competente, pero la idea sería restringir como se está haciendo ya en muchas ciudades. Amaia Lauzirica explica que la opinión de los comerciantes es variada, por un lado desean que se peatonalicen calles porque eso atrae a más personas pero por otro lado también reclaman que puedan venir en coche. En este sentido, habría que dar facilidad de aparcamiento fuera del núcleo urbano. Se propone asimismo ofrecer coches eléctricos en alquiler para que la gente no tenga tanta necesidad de tener un coche propio.

Eskoletara iristeko bide seguruei buruzko A3.4.5 ekintzari dagokionez, Andeka Zubiaurrek esan du ikasleen % 10 bizikletaz joaten direla institutura. Era berean bizikleta publikoaren sistema bateratzea iradokitzen du, Leioa, Uribe Kosta eta abarrekin lotzeko.

Con respecto a la acción A3.4.5 sobre los cambinos escolares seguros, Andeka Zubiaur comenta que el 10% de los escolares van al instituto en bicicleta. Asimismo, sugiere unificar el sistema de bicicleta pública para conectar con Leioa, Uribe Kosta, etc.

Irisgarritasunari buruzko programan, Txaro Artziniegak esan du Algortan adibidez oinezkoentzako gune asko dagoela eta bere iritziz hori ondo dagoela. Ángel Asensiok, Salsiduren arrapalei dagokienez, funtzionatzen ez dutenean (oso ohikoa dena) idazkun batekin abisatzea iradokitzen du.

En el programa de Accesibilidad, Txaro Arceniega comenta que por ejemplo en Algorta hay mucha zona peatonal y que en su opinión está bien. Ángel Asensio, en relación a las rampas de Salsidu, sugiere que cuando no funcionen (lo que es muy habitual), se avise con un letrero.

Biodibertsitatearen 4. Ildoari ekinda, Andeka Zubiaurrek debekua gorabehera itsasertzera sartzen jarraitzen duten eta ibilgailua egun

Pasando a la línea 4 de Biodiversidad, Andeka Zubiaur exige que se amoneste a los vehículos que, pese a la prohibición, siguen

osoan parapentea praktikatzeko aparkatuta uzten duten ibilgailuei ohartarazpena egiteko eskatzen du. Beti pertsona jakin batzuk dira eta horiekin zerbait egin beharko litzateke, oztopoak jarriz sartu ez daitezen edo nolabait isuna jarriz. Xabier Buenetxea guztiz bat dator iritzi horrekin.

Txaro Artziniega Arrigunagako hondartzan argiak jartzeko ordutegiaz interesatu da, gehiegizkoa iruditzen baitzaio. Interesgarria litzateke gune horretako argiztapen-ordutegiak ezagutzea, murriztu egin ote daitekeen aztertzearen ondoreetarako. Josu Atekak uste du asteburua baino ez dela ohikoa baino ordutegi luzeagoa duena, baina galdetu egingo da hori ziurtatzeko.

Xabier Buenetxeak iradokitzen du A4.2.1 ildoan jarduketa berri bat gehitzea Bolueko altzarien mantentze-lanak egiteko (bankuak, hesiak, etab.).

Azkenik, 5. ildoan, baliabideen eta bitartekoen erabilera jasangarriari buruzkoan, Javier Loidik esan du klima-aldaketaren aurkako borroka, azken batean, energiaren arloko borroka dela. Klima aldaketari aurre egiteko plana egitea zuzena iruditzen zaio, baina ekintza gehienek energiarekin lotutako osagaia izango dutela esan du. Alde horretatik, kostako udalerria garela aprobetxatuz, mareak neurtzeko mareografo bat jartzea interesgarria litzateke eta apurka-apurka aldaketa klimatikoa eragiten ari zaigun moduari buruzko historiko bat izatea.

Karmele Urquijok iturri eta baliabide elektrikoen deszentralizazioaren garrantzia azpimarratu du eta eraikuntza berri orok energia garbia zero izan behar duela gogorarazi du. Udal araudian zorrotzagoak izatea iradokitzen du Amaia Lauzirikak, hau da, legezkoa dena baino gehiago eskatzea eraikuntza berriko etxebizitzei. Gaur egun % 25ak jatorri berriztagarria izan behar du baina udalak gehiago eska dezake. Etxebizitzen birgaitzeak ere kezkatzen du Javier Loidi. Ildo horretatik Joseba Arregik erantzun du esanez EKIak (Eraikinen Kontserbazio Ikuskaritzak) egiten ari direla eta 50 urte betetzen dituzten etxebizitzetan egiten jarraituko dela.

Hondakinei dagokienez, Javier Loidik esan du, agian, hondakinak sortzeagatik ordaintzeari buruzko A5.3.2 ekintza asmo handiegia dela 2020-2023 aldian lortzeko, baina Joseba Arregik, ordea, uste du plan honetan sar daitekeela. Amaia Lauziricaren iritziz gehiago sustatu behar da birziklapena merkataritzan et horri dagokionez Joseba Arregik erantzun dio gaur egun ia nahierara dauden zerbitzu espezifikoak daudela saltoki eta denda askorekin, baina horretan lanean jarraituko dela.

Zarataren inguruko ekintzan, Karmele Urquijok aipatu du behinola kexa bat jarri zuela Gobelako kiroldegian motorren zaratagatik, baina gaiari buruzko isiltasun administratiboa egon dela. Udala saiatuko da jakiten ea horri buruzko jarduketaren bat egingo den.

Joseba Arregik gomendatzen du udal-ibilgailuen flotari buruzko A5.5.5. ekintzan gasezko ibilgailuak ere sartzea; izan ere, Getxok gas-planta bat du eta ibilgailu horiek elektrikoak baino merkeagoak dira.

accediendo al litoral y dejan el vehículo estacionado todo el día para practicar parapente. Se trata siempre de los mismos y se debería hacer algo, ya sea poniendo obstáculos para que no puedan acceder o multándoles de alguna manera. Xabier Buenetxea coincide plenamente.

Txaro Arceniega se interesa por el horario de alumbrado en la playa de Arrigunaga ya que le parece excesiva. Sería interesante conocer los horarios de alumbrado de esa zona para analizar si se podría rebajar. Josu Ateka cree que es solamente el fin de semana cuando tiene un horario mayor de lo habitual pero se preguntará para asegurarlo.

Xabier Buenetxea sugiere añadir una nueva actuación en la A4.2.1 para hacer el mantenimiento del mobiliario en Bolue (bancos, vallas, etc.).

Y finalmente en la línea 5 sobre el uso sostenible de los recursos, Javier Loidi comenta que la lucha contra el cambio climático es en definitiva una lucha energética. Le parece correcto hacer un Plan de lucha contra el cambio climático pero la mayoría de las acciones tendrán una componente relacionada con la energía. En este sentido, aprovechando que somos un municipio costero, sería interesante poner un mareógrafo para medir las mareas y poco a poco tener un histórico sobre cómo nos está afectando el cambio climático.

Karmele Urquijo incide sobre la importancia de la descentralización de las fuentes eléctricas y cómo toda construcción nueva tiene que ser de energía neta cero. Amaia Lauzirica sugiere ser más exigentes en la normativa municipal, es decir, exigir más que lo legal a las viviendas de nueva construcción. En la actualidad el 25% tiene que ser de origen renovable pero el Ayuntamiento puede pedir más. A Javier Loidi le preocupa también la rehabilitación de viviendas. En este sentido Joseba Arregi contesta que se están llevando a cabo las ICEs (Inspecciones de Conservación de Edificios) y que se continuará haciendo en las viviendas que vayan cumpliendo 50 años.

En cuanto a los residuos, Javier Loidi comenta que tal vez la acción A5.3.2 sobre el pago por generación de residuos sea demasiado ambiciosa para lograrlo en el periodo 2020-2023 pero Joseba Arregi piensa que sí que se puede incluir ya en este Plan. Amaia Lauzirica opina que ha de promoverse más el reciclaje en el comercio, a lo que Joseba Arregi contesta que en la actualidad existen servicios específicos prácticamente a la carta con muchos comercios pero que se seguirá trabajando en ello.

En la acción relativa al ruido, Karmele Urquijo menciona que puso en su día una queja por el ruido de motores en el polideportivo de Gobela, pero que ha habido un silencio administrativo al respecto. Desde el Ayuntamiento se intentará saber si se va a llevar a cabo algún tipo de actuación.

Joseba Arregi recomienda incluir también los vehículos de gas en la acción A5.5.5. sobre la flota de vehículos municipales ya que Getxo cuenta con una planta de gas y éstos son más económicos que los eléctricos

Azken saioa kutsadura elektromagnetikoari buruzkoa da, eta Joseba Arregik esan du Ministerioak antenak inbentariatzeko legezko betebeharra duela. Ministerioaren webgunean, https://geoportal.minetur.gob.es/VCTEL/vcne.do, inbentariatuta daude indarrean dauden telefonia mugikorreko operadoreen antenak eta bilaketa udalerrika egin daiteke. Bulego bat dago Bilbon eta agian informazio gehiago eska liteke.

El último programa trata sobre contaminación electromagnética y Joseba Arregi comenta al respecto que el Ministerio tiene la obligación legal de inventariar las antenas. En la página web del ministerio https://geoportal.minetur.gob.es/VCTEL/vcne.do están inventariadas las antenas de telefonía móvil de los operadores de telefonía móvil vigentes y se puede buscar por municipio. Hay oficina en Bilbao, tal vez se podría pedir mayor información.

**3.- Erreguak eta galderak.**

**3.- Ruegos y preguntas.**

Eugenia Atinek erantsitako Plana lasaitasun eta zehaztasun handiagoz aztertzeko eskatu die pertsona guztiei edozein jarduera berri aipatzeko edo gehitzeko. Iruzkinak otsailean bidaltzeko eskaera egin da.

Eugenia Atin pide a todas las personas que analicen con más tranquilidad y detalle el Plan adjunto para comentar o añadir cualquier actuación nueva. Se ruega se envíen los comentarios a lo largo del mes de febrero.

Bilera amaitutzat jo da Getxon, 21:10etan.

En Getxo, a las 21:10 horas se da por finalizada la reunión.